

Hizkuntza trukaketa

Martxoan, Mayorga kolegioko 4. eta 3.eko bederatzi ikaslek hizkuntza trukaketan parte hartu dute, Zarautzeko (Gipuzkoa) La Salle kolegioko bikotekideekin. Badu lau urte bi ikastetxeetako erakasleek plantan emandako programek, Euskal Herriko errealtate linguistiko, kultural eta geografikoa ezagutzea proposatzen digutela. Trukaketa bi testuinguru desberdinetan kokatzen da: alde batetik, Zarautz (Gipuzkoa), itsas bazterreko hiri jendetsua, bizia eta euskalduna. Bestetik, baserrialdeko giroan diren Donibane Garazi (Baxe

Nafarroa) eta inguruko herriak. Orotara, trukaketak bi aste segidan irauten du. Urtearen arabera, lehen astea (asteburua barne) Zarautzen edo Donibane Garazin iragaiten da, eta bigarrena, beste tokian. Aurten gu gira lehenik joan. Egun osoan, klaseak segitu ditugu gure bikotekideekin eta eskolaren ondotik familietan harreratuak izan gira; bikotekidea segitu dugu bere eskola kanpoko aktibitate desberdinetara. Halaber, Zarautzeko korrespondanteak Donibane Garazira etorri direlarik, ber baldintzetan harreratu ditugu. Esperientzia hori bikaina

izan da. Nahiz eta lehen egunak ez diren beti errexak izan, elgar uzteko mementoan triste ginen

eta berriz elgar ikusiko dugula laster hitzeman dugu...

Donibane Garaziko Mayorga kolegioa



Largente ikastetxean ere euskaraz!

Aurten Largente eskolan urrats garrantzitsua egin da, ama eskolan murgiltze gela ireki baita tipi eta artekoen malletan (PS eta MS). Esperientzia arrakastatsua izan denez, heldu den ikasturtean proiektua hedatuko da handien mailarat (GS). Gela honetan, haurrek egun osoa euskaraz bizi dute. Ikaskuntza guztiak euskaraz egiten dira, baina hizkuntza ez da ikasgai bakarrik lantzen: eguneroko bizitzan, proiektuetan, jokoetan eta ateraldietan ere euskaraz toki nagusia du. Helburua argia da: haurrek euskara naturalki erabiltzea eta bizitzea. Ikasturte hasiaren, Milafrangako goizaldi kulturalaren parte hartu zuten. Han, Philippe Alborren ikusgarria ikusi zuten. Geroztik, beste esperientzia anitz ere bizi ukan dituzte euskaraz: zinemara joan dira euskarazko saio batera, eta usu "eskola kanpoan" eginez naturan ikasteko parada ukan dute. Ihauteien inguruan, eskolako GSKo ikasleekin batera euskarazko ikusgarria prestatu zuten. Antzerki lan batean parte hartuz, haurrek euskaraz publiko baten aitzinean mintzatzeko eta kantatzeko plazera deskubritu zuten. Belaunaldien arteko trukaketak ere aberasgarriak izan dira. Eguberri garailan, CE2 eta CM1eko ikasleek tailerrak eta jokoak antolatu zituzten txikientzat Olenzeroen inguruan. Eta sorpresa handia izan zen denentzat: Olenzero eta Maridomingi eskolara etorri zirenean, buraso eta haurren ikusteko.

Ihauterietako astearte gizenan, PS-MSko haurrek CE2, CM1 eta CM2ko ikasleekin batera taloak prestatu zituzten. Aitzinetik erreza landu zuten gelan, eta ondoren elkarrekin sukaldatzeko eta dastatzeko parada ukan zuten Korrika garailan ere, euskararen aldeko egun ederra bizi ukan zuten eskolan. Korrika Tipia antolatu zuten, mailaz maila errelebo baten bidez. Haurrek, irakasleek eta burasoen giro ezin hobean parte hartu zuten ekimen honetan. Ondotik, piknik goxoa partekatu zuten eskolan burasoenekin. Egunari bukaera emateko, Korrikako koreografia dantzatu zuten denek elgarrekin, kantuz eta dantzaz. Urteko azken proiektua itsasoaren ingurukoak izan da. Ozeanoari buruzko liburu bat sortu dute haurrek, eta ebrean kontatu eta partekatu ahal ukan dute beren lana. Proiektu hori segida emanez, ekainaren 12an Biarritzeko akuariuma bisitatuko dute. Han arrainak ikusteaz gain, beharbada fokei jatekoa ematen ikusteko zorrea ere ukanen dute. Lehen urte honen bukaeran, denak uros dira egindako bidearekin. Burasoen, irakasleek eta haurrek egunetik egunera euskararen ulermenean eta ahozko adierazpenean egin dituzten aitzinamenduak ikus dituzkete. Haurrek geroz eta konfiantza handiagoa dute euskaraz mintzatzeko, eta hizkuntza beren eguneroko bizitzaren parte bilakatzen ari da. Biba zuek, haurrak! Eta aupa Largente euskalduna!

Largente eskola



Stella Mariseko lehen mailako ikasle elebidunak Gazte Kabalkadadan

Stella Maris ikastetxeko ikasleek Gazte Kabalkadadan parte hartu dute, Angeluko beste eskola elebidunetako eta Kimua Ikastolako ikasleekin batera, baita Kontserbatorioko 60 musikari gazterekin ere. Angeluarrak taldeak bere urtebetetzearentzat (60 urte) ekitaldi hori antolatu du.

Stella Mariseko CE2-CM2 mailako ikasle elebidunek antzerkiaren lehen zatia antzestu dute, eta gainerako ikasle elebidunek dantzak eskaini dituzte.


Ekainaren 5eko ostiral honetan eskaini den emanaldia urte osoan zehar landutako proiektu baten emaitza izan da. Proiektu honen bidez, gure ondarearen elementu garrantzitsu batekin, kabalkadarekin, hurbilketa eta ezagutza lantzeko aukera ukan dute ikasleek.



Vila Pia eta San Tomas lizeoko ikasle elebidunek lehen trukaketa egin dute!

Erakaskuntza katolikoan ikasle elebidunak daudela argi dago; izan ere, Euskal Haziak elkarteak sendotzen duen sarean 50 ikastetxe

elebidun topatzen dira. Ikastetxe horietako gela barruetako kurtsu batzuk euskaraz egiten dira, ikasleak elebidun izatera bideratu nahirik. Haatik, hizkuntzaren erabilera eta presentzia ez da beti agerikoa kurtsuetatik kanpo. Hori horrela izanik, Euskal Haziak elkarteak aktibitate kultural ezberdinak antolatzen ditu sareko ikasle elebidunek euskaraz gozatu eta euskara aisiarekin lotu dezaten. Proiektu horien



artean, aurreko egitasmo berri bat marxan ezarri da: Baionako Vila Pia eta Donibane Lohizuneko San Tomas lizeoko ikasle elebidunen trukaketa egin da lehen aldiz. Izan ere, askotan ikasleek ez dute jakiten zein diren beste ikastetxeetan dauden ikasle elebidunak. Ezjakintasun horren aurrean, oro har, harremanak erdaraz sortzeko joera egoten da. Trukaketa honen bidez, hori aldatu nahi izan da. Lehenik eta behin, bi lizeoetako ikasleek elkar ezagutu dute, haien sare berdineko beste ikasleak zein diren jakin eta bakarrak ez direla ohartzeko. Honakoa berraztertzea, bi egun ezberdin antolatua izan

dira, bat Baionan eta bestea Donibane Lohizunen. Bi hirietan lizeo bakoitzaren bisita egin da ikasleek sorturiko dinamiken bidez. Horrez gain, egunean zehar ezagutzajolasak eta bisitak egin dira, elkar ezagutu eta harremanak sortzeko. Momentu onak pasatu dituzte elkarrekin, eta hemendik aitzina hariak sendotzen segitu behar dugu. Ez dezagun ahantzi lizeoetako ikasle anitzek euskarazko azken erakaskuntza urteak dituztela. Egoera honen aurrean, euskara kurtsuetatik atera, teorikotik aisiara pasa eta ikasten duten hizkuntzan bizi daitezkeela erakutsi nahi diegu. Biba zuek! Heldu den urte arte!



